



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena Gai nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa Asuntos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2016ko otsailak 23

Vitoria-Gasteiz, 23 de febrero de 2016

Herri Administrazioa eta Justizia

EUSKO JAURLARITZAKO HIPOTEKA BITARTEKOTZARAKO ZERBITZUAK % 80tik GORAKO ARRAKASTA IZAN ZUEN 2015ean EBATZITAKO ESPEDIENTEETAN

- **Iaz, Eusko Jaurlaritzak 59 familiari finantza-erakundeekin hipoteka-zorrak berriz negoziatzen, eta hala, etxegabetze posibleak saihesten lagundu zien.**
- **Zerbitzu hori profesional adituek kudeatzen dute, doakoa da eta etxe bakar baten jabe izanik 350.000 €-tik beherako hipoteka duten herritar guztien eskura dago.**

Eusko Jaurlaritzaren Hipoteka Bitartekotzarako Zerbitzuak 59 familiari eman zien arreta 2015ean. Lurrealdeka, Bizkaian artatu ziren kasu gehien (36), gero Araban (14), eta azkenik, Gipuzkoan (9). Eusko Jaurlaritzak hipotekagauzatzeak saihesteko herritarren eskura jartzen duen doako zerbitzu bat da. Eskatzen duten pertsonen eta finantza-erakundeen artean bitartekotza eginez ordaintzeke dagoen zorra berriz negoziatzea da bere lana.

Gero eta pertsona gehiagok erabiltzen dute zerbitzua, bere emaitzak nabarmenki arrakastatsuak direlako: 2015ean itxi zituen 31 espedienteetatik 25ean, hau da, % 80,6an, alderdiak ados jarri ziren. Une honetan, beste 15 espediente negoziatzen ari dira eta horietatik gutxienez 14 adostu egingo direla aurreikusten da. Ondorioz, zerbitzu honen arrakasta-maila % 84,7era igoko litzateke.

2015ean EBATZITAKO ESPEDIENTEAK

	Bitartekotzak	Aldeko akordioa	Akordiorik ez
ARABA	10	6 (% 60)	4 (% 40)
BIZKAIA	17	16 (% 94,1)	1 (% 5,8)
GIPUZKOA	4	3 (% 75)	1 (% 25)
GUZTIRA	31 (% 100)	25 (% 80,6)	6 (% 19,3)

BETEBEHARRAK

Etxebizitza erosteagatik gainzorpetzeko egoeran dauden pertsona guztiek erabil dezakete zerbitzu hori, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Ohiko etxebizitza eta jabetzan duen bakarra izatea.
- Hipoteka-mailegua gehienez 350.000 eurokoa izatea, etxebizitzaren balioaren arabera, prozesu judiziala bidean egon edo ez, eta jabetzaren titulartasunari eusten bazaio betiere.
- Etxebizitza Euskadin egotea.

- Kaltetutakoak finantza-erakundearekin zorra berriro negoziatzeko egindako ahaleginak porrot egin izana.

Eusko Jaurlaritzak Jardun Profesionaleko Txandarekin sinatutako akordio baten bidez ematen du doako zerbitzu hau. Txanda horrek Ekonomisten Euskal Elkargoko eta Zinpeko Kontu Azterlarien Institutua-Euskal Autonomia Erkidegoko LEko profesionalak biltzen ditu.

Enplegu eta Gizarte Politikak

GIZARTE LARRIALDI EGOEREI AURRE EGITEKO 23 MILIOI EUROKO AURREKONTU SAILA ONARTU DU EUSKO JAURLARITZAK

Enplegu eta Gizarte Politika Sailaren proposamenari erantzunez, Gobernu Kontseiluak 23 milioi euroko gastua onartu du gaur 2016an gizarte larrialdi egoerei aurre egiteko, 2015ean baino milioi bat euro gehiago.

Gizarte-larrialdiko laguntzak (GLL) ez dira aldizkako prestazioak, eta ohiko zein ezohiko gastu jakinei aurre egiteko baliabide nahikoak ez dituzten bizikidetzak unitateei zuzentzen zaizkie. Batez ere, etxebizitzarekin, energiarekin eta sistema publikoek estaltzen ez dituzten bestelako beharrek lotutako gastuei aurre egiteko erabiltzen dira.

Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legeak, abenduaren 23koak, erregulatzen duena, Gizarte-larrialdiko laguntzek osatzen dute, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarekin eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarriarekin batera. Ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona guztien eskubide subjektiboa den bi prestazioak ez bezala, Gizarte-larrialdiko laguntzak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan esleitutako kredituaren arabera dira.

Iaz, 27.000 bizikidetzak-unitate inguruk jaso zuten laguntza, hau da, 48.000 onuradun inguruk (% 52 Bizkaian, % 28 Gipuzkoan eta % 20 Araban).

Gobernuak gaur onartu duen aginduan, bizikidetzak-unitateek diru-sarreraren eta osatzen duten pertsona kopuruaren arabera gehienez jaso ditzaketen portzentajeak adierazi dituzte. Era berean, udalerrietan erroldatutako pertsonen aurkeztutako eskabideetan oinarrituta, udal bakoitzari dagokion aurrekontu-muga jaso dute.

Enplegu eta Gizarte Politikak

700.000 EURO, GENERO INDARKERIAREN EMAKUMEZKO BIKTIMEI LAGUNTZAK EMATEKO

Jaurlaritzak argi berdea eman dio genero-indarkeriaren emakumezko biktimei bideratutako laguntza-deialdiari.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ematen ditu laguntza horiek, errenta-maila jakin batean kokatutako genero-indarkeriaren emakumezko biktimeentzat, eta 2016an 700.000 eurokoak izango dira.

Laguntzak 2014ko urriaren 29ko Aginduan arautzen dira. Agindu horren xedea Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan xedatutako diru-laguntzak genero-indarkeriaren biktime diren emakumeentzako eman eta ordaintzeko prozedura ezartzea da.

Laguntzen zenbatekoa 2.556 eta 10.224 euro artekoa da, emakume bakoitzaren egoera pertsonal eta familiarra gorabehera. Beren adina, prestakuntza orokor edo espezializatuaren falta eta beste zenbait inguruabar sozial direla-eta enplegua lortzeko zailtasun bereziak izan ditzaketen emakumeei bideratzen zaizkie bereziki. Laguntzak eskuratu ahal izateko, hauek dira oinarritzko betekizunak:

- a) Eskabidea aurkezten den datan Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egotea, sei hilabetez gutxienez.
- b) Indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 75eko edo hortik beherako hileko errenta izatea, aparteko bi pagaren zati proportzionala kenduta.
- c) Enplegua lortzeko zailtasun bereziak izatea; Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak igorritako txosten baten bidez egiaztatuko dira zailtasunok.
- d) Laguntza diru-sarreraren gabezia aldi batez arintzera bideratzea, bizirauteko gutxieneko baliabideak emateko, eta hala, erasotzailearengandik independizatzeko eta bere egoera egonkortzeko ahalmena izateko.
- e) 1/2004 Lege Organikoaren babespean ezarritako diru-laguntza hau aurretiaz jaso ez izana, ez Euskal Autonomia Erkidegoan, ez Estatuko beste erkidego batean.
- f) Genero-indarkeria egoera egiaztatzea, aurreikusitako moduan, eta babes-neurriak indarrean jarri zirenetik diru-laguntza hau eskatu denera arte urtebete baino gehiago igaro ez izana:

- Biktima babesteko neurriak xedatzen dituen genero-indarkeriako egintzengatiko kondena-epaitza bat, indarrean.
- Biktima babesteko agindu bat; eskabidea aurkeztean indarrean egon behar du.
- Salbuespen gisa, babesteko agindua eman arte, Ministerio Fiskalaren txosten baten bidez egiaztatu ahal izango da egoera hori. Txosten horretan, eskatzailea genero-indarkeriaren biktima izan den zantzuak daudela jaso beharko da.

g) Erasotzailearekin ez bizitzea (eta harekin harremana amaitu izana).

*Eusko Jaurlaritzak telefonozko informazio- eta arreta-zerbitzu espezializatu bat du genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat. **900 840 111** telefono-zenbakia da, eta 51 hizkuntzatan ematen du arreta. Biktimez gain, haien senide eta adiskideek ere jo dezakete zerbitzu horretara.*

Zerbitzuak, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako genero-indarkeriaren biktimei ez ezik, honako hauei ere eskaintzen die arreta: familia barruko genero indarkeriaren, laneko jazarpen-sexualaren, eraso sexualen, behartutako prostituzioaren eta esplotazio sexuala helburu duen gizaki-salerosketaren biktimei.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN KIROLAREKIN LOTUTAKO LANBIDEAK IZATEARI ETA HORIETAN JARDUTEARI BURUZKO LEGE AURREPROIEKTUA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak eskatuta, Gobernu Kontseiluak Euskadin kirolarekin lotutako lanbideak izateari eta horietan jarduteari buruzko lege-aurreproiektua onartu du.

Autonomia Estatutuko 10.36 artikuluan jasota dagoenez, Euskal Autonomia Erkidegoak kirolaren arloan eskumen eskusiboa dauka. Eskumen hori gauzatu, Eusko Legebiltzarrak Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legea onartu zuen. Aipatutako legeko 62. artikuluan xedatzen zenez, irakaskuntza-, zuzendaritza-, kudeaketa-, entrenamendu- eta animazio-zerbitzuak eta kirolarekin zuzenki lotutako bestelako edozein emateko, euskal botere publikoek dagokion titulu ofiziala exijitu behar dute.

Kirolaren arloko lanbideek gizartean gero eta eragin handiagoa daukatenez, arautu egin behar dira, gaur egun egin gabe dagoelako. Aipatutako jarduera profesionalak pertsonen osasunean eta segurtasunean eragin zuzena daukate, eta aholkularitza- eta tutoretza-lana, bereziki, prestakuntza egokirik gabeko pertsonak egin izan dute. Lege-aurreproiektuaren bidez, kirolarekin lotutako hainbat lanbide-jardueraren funtsezko alderdiak arautu nahi dira, horiek aurrera eramateko beharrezko kualifikazioa zein den zehaztuz eta lanbide bakoitzari dagokion jarduera-eremu orokorra finkatuz.

Legearen ezaugarrietako bat hauxe izango da: kirolarekin lotutako lanbideetarako sarbidea izatea edo lanbideotan jardun ahal izatea ez dela eskusiboki goi mailako hezkuntzako titulu akademiko bat izatearen mende egongo, dagozkion kualifikazio profesionalak izatea frogatzearen mende baizik. Eta kualifikazio horiek hainbat mailatako titulu akademikoen bidez ez ezik, bestelako bideak erabiliz ere frogatu ahal izango dira, adibidez, profesionaltasun-ziurtagirien bidez.

Legearen arautuko diren lanbideek hezkuntza-arloa, aisialdi-arloa, lehia-arloa eta zuzendaritza-arloa barne hartuko dituzte. Beraz, hauetaz ari gara:

- Irakasleez
- Monitoreez
- Entrenatzaileez
- Kirol-zuzendarienez

1. **Hezkuntza-arloan, irakaslearen figura** dagoeneko lanbide arautua da; Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan arautua, hain zuzen. Legearen bidez, Gorputz Hezkuntzako irakasleak adingabeei dagokienez betetzen duen funtzio garrantzitsua bermatu nahi da, eta horregatik, lehen sorospeneko gutxieneko prestakuntza izatea exijituko du. Hori lege honetan arautzen diren lanbide guztietan exijituko da.

2. Lehiaz kanpoko kirolaren eremuan jarduten duten **kirol-monitoreek** protagonismo nabarmena hartu dute azken urteetan. Euskadin, kirolak – osasun-, aisialdi- eta dibertimendu- edo gizarteratze-helburuekin eginda– aparteko hazkundera izan du. Jarduera profesionalerako eremu erakargarri bihurtu da. Era berean, abenturarekin, arriskuarekin edo natura-ingurunearekin lotutako kirolak praktikatzeko interes gero eta handiagoaren eraginez, profesionalen eskaintza eta eskaria hazi egin dira. Monitore-lanbidearen barruan, honako hauek daude, besteak beste:

- Aerobikeko edo pilateseko gimnasioko monitorea, eskolaz kanpoko kirol anitzekoa, natura-eremuko abentura anitzekoa, surfeko monitorea, igeri egiten ikastekoa, ur zakarretako piraguismoko gidaria...

Praktika horietako bakoitzak eskakizun zehatz bat betetzea eskatuko du (Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako graduduna, Jarduera Fisikoko eta Kirol Jardueretako Animazioko goi mailako teknikaria, profesionaltasun-ziurtagiria...). Eskola-kiroleko kirol anitzeko jardueretako monitorean kasuan, foru-aldundiek eskainitako prestakuntza-ekintzak egin dituzten pertsonak gaituta daude. Eskola-kiroleko entrenatzaileen kasuan gauza bera gertatuko da.

3. Lehiaketazko kirolaren eremuan –hainbat mailatakoa–, **entrenatzaileen figurak** errealitate oso ezberdinak barne hartzen ditu: lehiaketazko eskola-kiroletik hasita errendimendu handiko diziplina bateko prestaketaraino. Lege honek dagokion kirol-modalitateko edo -diziplinako entrenatzailearen lanbidea aitortzen du. Entrenatzailearen lanbideak, funtsean, kirolariak edo kirol-taldeak zuzentzea ahalbidetzen du, entrenamenduen plangintza zuzenduz lehiaketari begira. Barne hartzen dituen errealitateak:

- Ikastetxe bateko entrenatzailea, 10-11 urteko haurren kirol jakin bateko entrenatzailea, gazte-talde baten (16-18 urte) entrenatzailea, etab.

Errealitate horietako bakoitzak, entrenatzailearen figuraren barruan, horretan jarduteko prestakuntza jakin bat eskatzen du. Prestakuntza-mailak (baxua, ertaina edo altua) eta kirolaren ezaugarriek baldintzatuko dute zein titulazio edo ziurtagiri behar diren.

4. Legeak, halaber, **kirol-zuzendaria** lanbidea arautzen du. Lanbide horrek zuzendaritza, programazio, plangintza, koordinazio, kontrol eta gainbegiratze teknikoekin lotutako jarduera profesionalak egitea ahalbidetzen du. Kasu horretan, jarduera-esparruaren araberrako titulazioa beharko da: ikastetxe bateko eskola-kiroleko koordinatzailea, kirol-elkarte jakin bateko koordinatzailea, elkarte federatu bateko kirol-zuzendaria edo fitness-zentro bateko ur-jardueretako koordinatzailea.

Aipatzekoa da lege-proiektu honek, lehengo aldiz, informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidezko zerbitzuak (plataforma birtualak) arautzen dituela, zerbitzuak ematen dituzten pertsonak Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza baldin badute, eta gainera, zerbitzu profesionalak herritarrek erabil baditzakete. Aipatutako zerbitzuen erabiltzaileek ere beren osasuna eta segurtasuna babesteko kualifikazio egokia exijitzea merezi dute.

Aipatutako arloak alde batera utzita, lege-proiektuak ordainsaririk gabeko kirol-jarduera teknikoetan parte hartzen duten **boluntarioei** zuzendutako kualifikazio-eskakizunak ere jasotzen ditu. Beren lanak entrenatzaileen eta monitoreen esparruan garrantzi handia duela jakinda, testuan boluntarioek kirolarien osasuna eta segurtasuna bermatzeko bete beharko dituzten kualifikazio-exijentziak aipatzen dira. Printzipioz, legea zerbitzuen hartzaileen osasuna eta segurtasuna bermatzen ahalegintzen den neurrian, profesionalak exijitzen zaien kualifikazio bera eskatzen zaie, baina araubide malguagoa jasotzen da, gaur egungo gizarte-errealitatea kontuan hartuta: kolektibo batzuetan kualifikazio-maila txikiagoa exijitzeko aukera, arauak hautsiz gero zehapen arinagoak, kualifikazioak egiaztatzeko epe luzeagoa, eta abar.

Gaur egungo arauketarik ezaren eta lege berriak eragingo duen kualifikazio-exijentziaren artean ohiko trantsizio-arazoak saihesteko, legea berau indarrean jartzen denean lege-arauketa honen barruan sartzen diren lanbideak bertan eskatutako kualifikaziorik gabe garatzen ari diren pertsonen eskubideak errespetatzen saiatuko da. Era berean, legea pixkanaka eta traumatizatu gabe ezartzeko mekanismoak jasoko dira.

Legea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean, baina pixkanaka egokitze epe bat aurreikusiko da. Hala, profesionalak 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera exijituko zaizkie kualifikazioak; boluntarioei, berriz, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

UDAL TITULARITATEKO IKASTETXE PUBLIKO BERRIAK

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, Euskal Autonomia Erkidegoan udal titularitateko zenbait ikastetxe publiko sortzea onartu du.

Zehatzago esanda, Barakaldo, Basauri, Bermeo, Durango, Ermu, Gernika-Lumo, Mungia, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Andoain, Eibar, Hernani, Pasaia eta Usurbilgo Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuak sortu eta funtzionatzen hasten dira.

Ingurumena eta Lurralde Politika

EUSKO JAURLARITZAK TRENBIDE-AZPIEGITURETARAKO ZIRKULAZIO ETA SEINALEEN ERREGELAMENDUA ONARTU DU

- **Autonomia-erkidegoaren eskumen dira, eta ETSren esku utzi dira.**

Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenpeko **trenbide-azpiegituretarako Zirkulazio eta Seinaleen Erregelamendua** onartu du; hala Euskal Trenbide Sarea (ETS) erakunde publikoaren esku utzitako trenbide-azpiegituretarako nola etorkizunean haien ardurapean utziko direnetarako. Arau berriak 2001ekoa ordezkatzeko du –hau da, Eusko Trenbideak erakunderako zirkulazio eta seinaleen erregelamendua–, baita berori aurkatzen eta ezeztatzen duen maila bereko edo txikiagoko xedapen oro ere.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak, Ana Oregik, zehaztu duenez, «Gernikako Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoari esleitu zion trenbideen arloko eskumen eskusiboa, Europako Batzordearekin bat etorri; izan ere, ezartzen du autonomia-erkidegoen eskumen direla "osoki autonomia-erkidegoaren lurraldean igarotzen diren trenbide eta errepideak, eta, baldintza beretan, baita bitarteko horien edo kable bidez egiten den garraioa ere".

1982an, Eusko Trenbideak - Ferrocarriles Vascos, S.A. sozietate publikoa eratu zen, trenbidezko garraioen arloko zerbitzuak emateko, bidaiariak nahiz merkantziak eramateko eta material gurpildunaren mantentze-lanak eta osagarriak diren edo trenbidezko garraioarekin zerikusia duten beste zerbitzu zein jarduerak egiteko. 2004an Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoa sortu zen, honako helburu hauekin: besteak beste: Gobernuak agintzen dizkion trenbidezko garraio-azpiegitura berriak eraikitzea, zaintzea, kudeatzea eta administratzea, bai eta Gobernuak esleitzen dizkion aurrez egindako trenbidezko garraio-azpiegiturak zaintzea, kudeatzea eta administratzea ere.

Zirkulazio eta seinaleen erregelamendua onartu zenetik igarotako denboran, trenbidearen ustiaketan eragiten duten egoera berriak agertu dira; horiek tartean, beharrezkoa da erregelamendua berriro aztertu eta arautzea, eta hori izan da erregelamendu berri bat komenigarritzat jo izanaren zergatikoa» adierazi du Ana Oregik.

Zirkulazio eta seinaleen erregelamenduak sei titulu ditu, honako hauen inguruan: orokortasunak, segurtasuneko seinale eta instalazioak, zirkulazioa, trenen blokeoa, osaera eta balaztatzea eta maniobrak.

FERNANDO URIONDO, EKPREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN KONTSEILARI-KIDE

Gobernu-kontseiluak Euskadiko Kirol Portuak SA sozietate publikoaren Administrazio Kontseiluaren kontseilari-kide izendatu du Fernando Uriondo, Elena Leteren ordezkotza gisa.

Administración Pública y Justicia

EL SERVICIO DE MEDIACIÓN HIPOTECARIA DEL GOBIERNO VASCO SUPERÓ EL 80% DE ÉXITO EN LOS CASOS CERRADOS EN 2015

- El año pasado, el Gobierno vasco ayudó a 59 familias a renegociar sus deuda hipotecarias con las entidades financieras y evitar así posibles desahucios.
- Este servicio está gestionado por profesionales expertos, es gratuito y está a disposición de toda la ciudadanía que disponga de una única vivienda en propiedad y cuya hipoteca no supere los 350.000€.

El servicio de Mediación Hipotecaria del Gobierno vasco atendió a 59 familias en 2015. Por territorios, Bizkaia es donde mayor número de casos se atendieron (36), seguido de Araba (14) y finalmente Gipuzkoa (9). Es un servicio gratuito que el Gobierno vasco pone a disposición de la ciudadanía para evitar los casos de ejecución hipotecaria. Su trabajo consiste en mediar entre las personas que lo solicitan y las entidades financieras para renegociar la deuda pendiente.

Se trata de un servicio que cada vez utilizan más personas dado el notable éxito de sus resultados: en 2015, se cerraron 31 expedientes, de los que 25, esto es el 80,6%, se resolvieron con acuerdo entre las partes. En estos momentos se están negociando 15 expedientes más y se prevé acuerdo en al menos 14 de ellos, lo que elevaría la tasa de éxito de este servicio al 84,7%.

EXPEDIENTES RESUELTOS 2015

	Mediaciones	Acuerdo favorable	No acuerdo
ARABA	10	6 (60%)	4 (40%)
BIZKAIA	17	16 (94,1%)	1 (5,8%)
GIPUZKOA	4	3 (75%)	1 (25%)
TOTAL	31 (100%)	25 (80,6%)	6 (19,3%)

REQUISITOS

A este servicio pueden recurrir todas las personas que se encuentren en una situación de sobreendeudamiento como consecuencia de la adquisición de su vivienda siempre que cumplan los siguientes requisitos:

- Que sea la vivienda habitual y la única en propiedad.
- Que el préstamo hipotecario no supere los 350.000€, atendiendo al valor de la vivienda, con independencia de que exista o no proceso judicial en curso y siempre que se mantenga la titularidad de la propiedad.

- Que la vivienda se encuentre ubicada en Euskadi.
- Que la persona afectada haya fracasado en su intento de renegociar la deuda con la entidad financiera.

El Gobierno Vasco presta este servicio gratuito a través de un acuerdo firmado con el Turno de Actuación Profesional, que engloba profesionales del Colegio Vasco de Economistas y del Instituto de Censores Jurados de Cuentas-AT País Vasco.

Empleo y Políticas Sociales

EL GOBIERNO APRUEBA UNA PARTIDA DE 23 MILLONES DE EUROS PARA ATENDER SITUACIONES DE EMERGENCIA SOCIAL

A propuesta del Departamento de Empleo y Políticas Sociales, el Consejo de Gobierno ha autorizado un desembolso de 23 millones de euros para atender situaciones de emergencia social en 2016, lo que supone un incremento de un millón respecto al año pasado.

Las Ayudas de Emergencia Social (AES) son prestaciones no periódicas, destinadas a unidades de convivencia cuyos recursos resultan insuficientes para hacer frente a gastos específicos, tanto de carácter ordinario como extraordinario. Fundamentalmente se utilizan para hacer frente a gastos relacionados con la vivienda, la energía y otras necesidades no cubiertas por los diferentes sistemas públicos.

Las AES, junto a la Renta de Garantía de Ingresos y la Prestación Complementaria de Vivienda, conforman el Sistema Vasco de Garantía de Ingresos, regulado mediante la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social. A diferencia de esas dos prestaciones, que se configuran como un derecho subjetivo para todas aquellas personas que cumplan los requisitos establecidos, las AES están sujetas a la existencia de crédito consignado en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

A lo largo del año pasado fueron atendidas cerca de 27.000 unidades de convivencia, lo que se corresponde con aproximadamente 48.000 personas beneficiarias (un 52% en Bizkaia, un 28% en Gipuzkoa, y un 20% en Araba).

La Orden aprobada hoy por el Ejecutivo recoge los porcentajes máximos de ayudas a recibir por las unidades de convivencia en función de sus ingresos y del número de personas que las componen. Asimismo, indica el límite presupuestario que corresponde a cada ayuntamiento en base a las solicitudes presentadas por las personas empadronadas en su municipio.

Empleo y Políticas Sociales

700.000 EUROS PARA AYUDAS A MUJERES VÍCTIMAS DE LA VIOLENCIA DE GÉNERO

El Gobierno ha dado luz verde a la convocatoria de ayudas para las mujeres víctimas de la violencia de género.

Este tipo de ayudas que concede el Departamento de Empleo y Políticas Sociales se recogen en el artículo 27 de la Ley orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género, y se destinan a las mujeres víctimas de violencia de género situadas en un determinado nivel de rentas. En 2016 las ayudas ascienden a 700.000 euros,

El importe de las ayudas oscila entre 2.556 y 10.224 euros dependiendo de las circunstancias personales y familiares de cada mujer. Las ayudas se dirigen especialmente a mujeres que, por su edad, falta de preparación general o especializada, y otras circunstancias sociales, pueden tener especiales dificultades para obtener un empleo. Los requisitos fundamentales para acceder a ellas son:

- a)** Estar empadronada, a la fecha de solicitud, en la Comunidad Autónoma del País Vasco con una antigüedad de al menos seis meses.
- b)** Carecer de rentas que, en cómputo mensual, superen el 75 por ciento del salario mínimo interprofesional vigente, excluida la parte proporcional de dos pagas extraordinarias.
- c)** Tener especiales dificultades para obtener un empleo, que se acreditará a través de informe emitido por Lanbide-Servicio Vasco de Empleo.
- d)** Destinar la ayuda a paliar temporalmente la ausencia de ingresos con el fin de facilitarle unos recursos mínimos de subsistencia que le permitan independizarse del agresor y estabilizar su situación.
- e)** No haber percibido esta ayuda, establecida al amparo de la Ley Orgánica 1/2004, con anterioridad, ni en la Comunidad Autónoma Vasca, ni en ninguna otra comunidad del estado.
- f)** Acreditar la situación de violencia de género en la forma prevista, no habiendo transcurrido más de un año entre la entrada en vigor de las medidas de protección y la fecha de solicitud de esta ayuda:
 - Sentencia condenatoria por hechos constitutivos de violencia de género, en la que se acuerdan medidas de protección a favor de la víctima, en vigor.
 - Orden de protección a favor de la víctima en vigor a la fecha de la solicitud..

- Excepcionalmente, será título de acreditación de esta situación el informe del Ministerio Fiscal que indique la existencia de indicios de que la denunciante es víctima de violencia de género en tanto se dicta la orden de protección.

g) No convivir con el agresor (y haber finalizado la relación con él).

*El Gobierno Vasco cuenta con un servicio especializado de información y atención telefónica para las mujeres víctimas de la violencia de género. Es el **900 840 111**, un número que atiende en 51 idiomas, al que también pueden acceder sus familiares y personas allegadas.*

Este servicio no sólo atiende a las mujeres víctimas de la violencia de género ejercida por la pareja o ex pareja; también se dirige a los casos de violencia intrafamiliar de género, acoso sexual en el ámbito laboral, agresiones sexuales, prostitución forzada y trata de seres humanos con fines de explotación sexual.

Educación, Política Lingüística y Cultura

ANTEPROYECTO DE LEY SOBRE ACCESO Y EJERCICIO DE LAS PROFESIONES DEL DEPORTE EN EL PAIS VASCO

A petición de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, el Consejo de Gobierno ha aprobado el Anteproyecto de Ley sobre Acceso y Ejercicio de las Profesiones del Deporte en Euskadi.

Según recoge el artículo 10.36 del Estatuto de Autonomía, la Comunidad Autónoma del País Vasco goza de competencia exclusiva en materia deportiva. En el ejercicio de dicha competencia, el Parlamento Vasco aprobó la Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte. Dicha Ley establecía en su artículo 62 que para la realización de los servicios de enseñanza, dirección, gestión, entrenamiento, animación y cualesquiera otros directamente relacionados con el deporte, los poderes públicos vascos debían exigir el correspondiente título oficial.

La cada vez mayor incidencia en la sociedad de las profesiones del deporte hace necesaria una regulación inexistente en la actualidad. Dichas actividades profesionales tienen una incidencia directa en la salud y en la seguridad de las personas, especialmente cuando la labor de asesoramiento y tutoría ha venido siendo asumida por personas carentes de una adecuada formación. El Proyecto de Ley persigue regular los aspectos esenciales del ejercicio de algunas profesiones propias del ámbito del deporte, determinando las cualificaciones necesarias para el ejercicio de las mismas y atribuyendo a cada profesión su correspondiente ámbito funcional general.

Una de las características de la Ley será que el acceso o ejercicio de las profesiones del deporte no estará sujeto exclusivamente a la posesión de un título académico de educación superior, sino a la acreditación de las correspondientes cualificaciones profesionales. Y estas cualificaciones podrán acreditarse no sólo mediante títulos académicos de diferentes niveles sino también mediante otras vías como, por ejemplo, los certificados de profesionalidad.

Las profesiones que se regularán en la ley abarcarán el ámbito educativo, el ámbito recreativo, el ámbito competitivo y el ámbito de la dirección. De este modo, hablamos de:

- Profesores y profesoras
- Monitores y monitorias
- Entrenadores y entrenadoras
- Directores Deportivos y Directoras Deportivas

1. **En el ámbito de la educación, la figura del profesor-profesora** es una profesión ya regulada con arreglo a la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación. La Ley trata de garantizar la importante función del Profesor o Profesora de Educación Física con los menores y por esta razón exigirá una formación mínima en primeros auxilios. Dicha exigencia se repetirá en todas las profesiones que se regulan en la presente Ley.

2. **Los monitores deportivos-monitoras deportivas**, cuyo ámbito de actuación es aquel deporte que no es de competición, han cobrado un destacado protagonismo en los últimos años. El deporte practicado en Euskadi con propósitos de salud, ocio y recreación o integración social, ha experimentado un extraordinario auge. Se ha convertido en un atractivo campo de actuación profesional. Asimismo, el aumento cada vez mayor del interés por la práctica de los deportes de aventura, de riesgo o en el medio natural ha alimentado una importante oferta y demanda de profesionales. Dentro de la profesión de monitor-monitora, se encuentran entre otros:
 - Monitor/a de aeróbic o de pilates en un gimnasio, multideporte en actividad extraescolar, multiaventura en la naturaleza, monitor/a de surf, natación de aprendizaje, guía de piragüismo en aguas bravas...

Cada una de estas prácticas conllevará el cumplimiento de un requisito específico (Graduado o Graduada en Ciencias de la Actividad Física y del Deporte, Técnico o Técnica Superior en Animación de Actividades Físicas y Deportivas, Certificado de profesionalidad...). En el caso de monitor-monitora de actividades de polideportivas de deporte escolar, quedan habilitadas las personas que han realizado las acciones formativas ofertadas por las Diputaciones Forales. Este hecho también se dará en el caso de los entrenadores-entrenadoras de deporte escolar.

3. **La figura de los entrenadores-entrenadoras**, dentro del deporte de competición -en diferentes niveles-, abarca realidades muy diferentes: desde el deporte escolar de competición hasta la preparación de una disciplina de alto rendimiento. La presente Ley reconoce la profesión de entrenador-entrenadora de la modalidad o disciplina deportiva correspondiente. Esta profesión permite, fundamentalmente, planificar y dirigir el entrenamiento y dirección de deportistas y equipos con miras a la competición. Realidades que recoge:
 - Entrenador/a en un centro escolar, entrenador/a de niños/niñas de 10-11 años en un deporte determinado, entrenador/a de un equipo juvenil (16-18 años), etc.

Cada una de estas realidades, dentro de la figura del entrenador/entrenadora, contempla una formación determinada para poder ejercerla. El nivel de la formación (nivel bajo, medio o alto), y las características del deporte en cuestión, determinarán las titulaciones o reconocimientos necesarios.

4. La ley regula así mismo la profesión de **Director Deportivo o Directora Deportiva**, que permite realizar el conjunto de actividades profesionales relacionadas con la dirección, programación, planificación, coordinación, control y supervisión técnica. En este caso, la titulación necesaria dependerá de su ámbito de actuación: coordinador de deporte escolar de un colegio, coordinador de un club de un deporte determinado, Director Deportivo de un Club federado o Coordinador de las actividades acuáticas de un centro de Fitness.

Cabe señalar que el presente Proyecto de Ley regula por primera vez la prestación de servicios a través de las tecnologías de la información y la comunicación (plataformas virtuales) cuando las personas prestadoras de los servicios tengan su sede en el País Vasco y, además, los servicios profesionales puedan ser utilizados por ciudadanos o ciudadanas. También las personas que utilizan tales servicios son acreedoras a una protección de su salud y su seguridad mediante la exigencia de la correspondiente cualificación.

Al margen de los citados ámbitos, el Proyecto de Ley también recoge las exigencias de cualificación para **los voluntarios-voluntarias** que participan en actividades técnico-deportivas sin remuneración. Consciente de la importancia de su labor en el ámbito de los entrenadores y monitores, el texto cita las exigencias de cualificación que los voluntarios tendrán que cumplir, al objeto de garantizar la salud y la seguridad de los deportistas. En principio, en la medida que la Ley trata de garantizar la salud y la seguridad de las personas destinatarias de sus servicios, se requiere la misma cualificación que se exige a los profesionales, pero se contempla un régimen más flexible atendiendo a la realidad social existente: posibilidad de exigencia de cualificaciones inferiores en determinados colectivos, sanciones más leves en caso de incumplimiento, mayor plazo de acreditación de las cualificaciones, etcétera.

Al objeto de evitar los habituales problemas de transición entre la situación actual de falta de regulación y la exigencia de cualificaciones con la nueva ley, ésta tratará de ser respetuosa con los derechos de quienes, a la entrada en vigor de la misma, se encuentran desarrollando profesiones objeto de esta regulación legal sin la cualificación requerida en la ley. De igual modo se contemplarán mecanismos para la implantación progresiva y no traumática de la misma.

Aunque la Ley entrará en vigor al día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, se contempla un periodo progresivo de adaptación a la misma de modo que la exigencia de cualificaciones a los profesionales será a partir del 1 de enero de 2019 y a los voluntarios a partir del 1 de enero de 2020.

Educación, Política Lingüística y Cultura

NUEVOS CENTROS DOCENTES PÚBLICOS DE TITULARIDAD MUNICIPAL

El Consejo de Gobierno, a propuesta de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, ha aprobado la creación de varios centros docentes públicos de titularidad municipal en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En concreto se crean y ponen en funcionamiento los Institutos Municipales de Formación Profesional Básica (IMFPB) de Barakaldo, Basauri, Bermeo, Durango, Erandio, Ermua, Gernika-Lumo, Mungia, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Andoain, Eibar, Hernani, Pasaia y Usurbil.

Medio Ambiente y Política Territorial

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA EL REGLAMENTO DE CIRCULACIÓN Y SEÑALES PARA LAS INFRAESTRUCTURAS FERROVIARIAS

- **Competencia de la comunidad autónoma y encomendadas a ETS**

El Gobierno Vasco ha aprobado el **reglamento de Circulación y Señales para las infraestructuras ferroviarias** de competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco y encomendadas al ente público Red Ferroviaria Vasca/Euskal Trenbide Sarea así como a las que en el futuro se le encomienden. La nueva norma sustituye a la del año 2001 del reglamento de circulación y señales de Eusko Trenbideak así como cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan o contradigan.

Según detalla la Consejera de Medio Ambiente y Política Territorial Ana Oregi, “el Estatuto de Gernika confirió a la Comunidad Autónoma del País Vasco la competencia exclusiva en materia de ferrocarriles, en concordancia con Comisión Europea, que establece que son competencia de las comunidades autónomas “los ferrocarriles y las carreteras cuyo itinerario transcurra íntegramente en el territorio de la comunidad autónoma y, en los mismos términos, el transporte desarrollado por estos medios o por cable”.

En 1982 se creó la Sociedad Pública “Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos, S.A.” para la prestación de servicios de transporte ferroviario, tanto de viajeros como de mercancías, incluyendo el mantenimiento del material rodante, y de otros servicios o actividades complementarias o vinculadas al transporte ferroviario. Ya en 2004, se creó el ente público “Red Ferroviaria Vasca/Euskal Trenbide Sarea”, siendo su objeto entre otros, la construcción, conservación, gestión y administración de nuevas infraestructuras de transporte ferroviario que le encomiende el Gobierno, así como la conservación, gestión y administración de las infraestructuras de transporte ferroviario preexistentes que le adscriba el Gobierno.

“Tras el tiempo transcurrido desde la aprobación del citado reglamento de circulación y señales, existen nuevas situaciones que influyen en la explotación ferroviaria que hacen necesario que sea nuevamente objeto de revisión y regulación, lo que ha motivado la conveniencia de aprobar un nuevo reglamento” comenta Ana Oregi.

El reglamento de circulación y señales consta de seis títulos sobre generalidades, señales e instalaciones de seguridad, circulación, bloqueo de trenes, composición y frenado y maniobras.

FERNANDO URIONDO, CONSEJERO-VOCAL DEL CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN DE EKP

El Consejo de Gobierno ha nombrado consejero-vocal del Consejo de Administración de la Sociedad Pública “Euskadiko Kirol Portua, SA” a Fernando Uriondo en sustitución de Elena Lete.